

ARTELEKU

MINTEGIA

(hitzaldiak eta lantegia)

Y+Y+Y

Artea eta konplexutasunaren zientziak

Duela jadanik hainbat hamarkadaz geroz (joan den mendeko 20ko urteez geroztik ia, esan genezake), “konplexutasunaren zientziak” deritzenak toki garrantzitsua hartuz joan dira era askotako zientzia-adarretan. Zibernetikak, fisika kuantikoak, ekologiak, matematikek, zientzia kognitiboak, ingeniariak, biologia molekularrak, psikologiak, geologiak, informazio- eta komunikazio-zientziak, soziologiak, eta jakintzaren beste alor askok hainbat teoriari heldu diote mundua ulertzeko duten moldean aldaketa garrantzitsuak egiteko. Zenbait fenomenok –hala nola, autoantolaketa, emergentzia, fraktalitatea, sareak, talde-adimena, egitura iraungikorak, hierarkia nahasiak, eta abar– eta fenomeno horiek argitzen saiatzen diren teoriak tresna berriak eskaintzen dizkiete zientziari eta epistemologiari, baten batek kuhniar terminoetan paradigma-aldaketa gisa aurkezten duen egoeran.

Artea, itxura batzuk gorabehera eta "garbizale" batzuek eginahalak eginda ere, kutsadura zabaltzen den lekua izan da beti, eta, jakina, zerikusia izan du beti ezagutza zientifiko eta teknikoarekin. Hala eta guztiz ere, artearen espezifikotasuna mantendu egin behar da, eta ez sinismen-kontuak direla kausa (bere “autonomian” sinistea, alegia), baizik eta errealitatera hurbiltzeko espezifikotasun horrek arteari ahalbidetzen diolako bere baitan edozein ezagutza edo esperientzia mota biltzea, horrek berekin izan gabe, nahitaez, artearen eginkizun berezien nahasmendu itzulezina, hilgarria.

Arte-jarduerak nahasmenduak jasateko duten ahalmena bizi-fenomeno konplexuenen ahalmenaren antzekoa da; hau da, arteak onartu egin dezake testuingurutik datozen aldagaiak bereganatzea, eta horrek ez du zertan beraren espezifikotasunaren iraungitzea ekarri, arteak bere xurgatzeko eta berrantolatzeke gaitasuna handitu besterik ez du-eta egin behar. Artea sistema irekia da, eta, zientziak bezala, kontuan hartzen du galdera hau: zer gertatuko litzateke, baldin eta...? Alabaina, arte-metodologiaren espezifikotasunak esperientzia desberdinetarako bidea ematen du. Horregatik, konplexutasunaren zientziak eskaintzen dituzten ulertzeko aukerak, oraingoak, ezin neurtuzkoak dira artearen etorkizunarentzat, baina etorkizun hori sumatu egin daiteke, antza, aukera horiei nahiko estu lotuta.

Behin zoriarekin harremanetan hasi garenean, eta gure bizitzetan aliatu gisa sartzen utzi dugunean, lanean hasi gara berarekin lehen zeharo nahaspilatuak iruditzen zitzaizkigun fenomenoak ulertu ahal izateko. Mundua, orain, askoz ere anizkunago, zalantza-koago eta gorabeheratsuagoa da, duela gutxi arte sinisten genuena baino (eta orain jakin badakigu). Munduari buruz egiten ditugun bertsioak ugaritu egiten dira antolatzen gero eta zailagoa den kartografian, baina, zailtasun horiek liluragarriagoak dira, lehen geure buruari

ematen genizkion bertsio baterakoiak baino. “Denak balio du” delakoan urtzeko arriskurik badago, nahaste orokorra gertatzeko arriskuek gure adimen moldakorrak izutu egiten dituzte, kapitalismo malgu eta mediatikoan oinarriak dituzten manipulazio interesatuaren arriskuak aspaldian hasi ziren agertzen; baina, pentsaera artistikoak eta zientifikoak ez dute inoiz atzeraka jo, hasiera batean gaindiezinak ziren erronkei aurre egin behar izan zietenean.

ARTELEKUn, astebeteko lantegi-jardunen eta hitzaldien bitartez, gai horiek era kritikoa hausnartuko ditugu. Hainbat jakintza-adar lantzen dituzten artistek, epistemologoen eta zientzialariek zer eginkizunetan ari diren azaltzeko aukera izango dute, eta, halaber, mundua ulertzeko ahaleginetan –lanen bidez, edo orain arte geure buruari eman dizkiogun bertsio eta ikuspegi bakunduak saihestu nahi dituzten teoriak aztertzean eta sortzean– topatzen dituzten arazoak berri emango digute.

Eta era honetako galderak mahaigaineratuko ditugu:

zer da autoantolaketa? ba ote da talde-adimena? // hautematen al da etorkizunean bizitza artifizialeko aukerarik? eta adimen artifizialerako? // konplexutasunaren zientziak zein neurritan errazten dituzte gizarteak hiperkontrolatzeko eta hipergobernatzeko moldeak? // iritsiko ote zaigu, azkenean, etorkizun posthumanista? zertan izan behar du? // - litekeena ote da arte, zientzia eta filosofia berriro elkartzea konplexutasunaren paradigmen baitan? // nola eragiten diote konplexutasunaren zientzietatik iritsitako ezagutzek arte-ekoizpenen garapenari? “beste mugimendu bat” besterik ez da, ala ekoizpen guztiak blaituko ditu, *zeitgeist* berria balitz bezala? gertatzen ari da dagoeneko? // arteak konplexutasun-eredu bat eraiki izan du beti? eta arte-lanek? // - teknologia konputazional berriek artearen eta zientziaren arteko hurbilketa berria ahalbidetu dute? // teknologia berriak artea konplexutasunaren fenomeno eta teoretara hurbiltzeko dagoen modu bakarra dira? ba ote dago beste aukerarik? // programazioa artistaren etorkizuna ote da? // ...

~...